



IPUINA

JOSEBA
SARRIONANDIA

Atzo hasitakoari jarraipena emanez, Joseba Sarrionandiaren *Arrazionala* ipuinaren beste atal bat ekarri dugu, amaierakoa, EUSKALDUNON EGUNKARIAKO orrialdeotara. Sarrionandiaren ipuin hau egile beraren *Lagun izoztua* nobelan aipatua da, baina nobelan ipuinaren zati labur baino ez dago irakurgai. Nolanahi ere, Durango Azokan nobela hori erosten dutenek *Arrazionala* ipuinaren gutun itxurako kopia bat jasoko dute opari.

Arrazionala (eta II)

Gero eguzkitan esnatu nintzen. Begiak zabaldu nituenean shama eta beste hiru gizon habea ateratzen ari ziren eta handik alde egin behar genuela konturatu nintzen. Batzuk kanoetan joan ginen, beste batzuk basotik zehar. Kaimaneroengandik urrundu beharra zutela pentsatu nuen.

Ibai bazterreko beste hondartza batean egin genuen kanpamentu berria. Habea bertan landatu eta han geratu ginen. Ordurako shamanak lagun moduan tratatzen ninduen eta, halako batean, geramai zer zen galdetu nion.

'Geramai koinatua da,' esan zidan.

Ordura arte ez zuen egin, baina orduan ohartu nintzen shamanak bazekiela apur bat gaztelaniaz. Geramai koinatua zen beraz, eta edjumai dho anaia nagusia.

'Zuek ze izen duzue?' galdetu nion.

'Guk ez dugu izenik. Shuarrek eta arrazionalak nantu esaten digute, baina gu jendea gara, herria gara, pertsonak gara...'

Jendea, herria, pertsonak esateko nantueraz erabiltzen zuten izena ez zuen aipatu. Taburen bat izango zuten, edo ez zitzaien besteek emango zieten izena ardura izango.

'Eta zure izena?' galdetu nion.

'Epifanio. Inerih naiz, baina nire izena Epifanio da arrazionalentzako...'

Orduan ulertu nuen, Epifanio para los racionales esan zuenean, itzelezko ironiarekin eta era burloian esanda, geu ginela arrazionalak: soldaduak, kaimaneroak, misiolariak, petrolio bilatzaileak, iraultzaile derrotatuak, etnologoak, narkotrafikanteak. Gu ginen besteak, desasosegatuak, etxegabeak, galduak eta, igual, amore ematea eta gupida apur bat merezi genuenak.

'Zer moduz zaude gure artean?' galdetu zidan Epifaniok arrats batean.

'Haluzinazioak ditut,' esan nion.

Dantza gaueko nire haluzinazioak kontatu nizkionean, ursugea eta jaguarra euren arbaso animaliak zirela erantzun zidan.

'Bai eta zer...' esan nion.

Zuhaitzak zuen agure isla eta dortokaren begirada humanoa aipatu nizkion.

'Errealitate gutxi dugu,' esan zuen. 'Batak besteari zentzua eman behar diogu bizirauteko...'

Eta ulertu nuen moduan kontatzen ahaleginduko naizena azaldu zidan, erlijioa den edo filosofia den ez dakidan sinestea. Mundua eta munduko gauza guztiak izar errautsa gara, su ia amatatua, eta errealitate ahula dugu, ia irrealak gara. Kanoa hori, esate baterako, ez da kanoa gizakiak landu ez badu, gizakia kanoan ez badoa, eta hori erraz konprenitzen da, kanoa gizonak egin eta erabiltzen duen tresna delako. Baina edozer gauzari pasatzen zaio hori, ibai hori ez litzateke aski ibai hor uretan arrainak ibiliko ez balira, uharriak eramango ez balitu, ibaiaren bazterrean geu biziko ez bagina, beste gauzek ematen diote beraz ibaiari errealitatea eta zentzua.

Gizajendeak ere ahultasun elemental hori jasaten du, bere errealitatearen txingarrak ia itzalita daude eta unibertsoare-

mineralen batzuk emango zizkiela; ibai-ko buztinaren konposizioa aztertu behar-ko nuen hori enpirikoki frogatzeko. Baina ez. Epifaniok zioenez, mundua orekarik gabea zen, larria, absurdoa. Errealitatea ez zen gauza eman bat, baizik eta uneoro antzematen ahalegindu behar zen zerbait, eta gauzek batak bestearengan bilatu behar zuten zentzua. Nantuek lurra jenez tinkotasuna eta araztasuna bilatzen zuten, horrela nabarmenagoak eta erre-agoak izango zirelakoan.

Artean nik ere probatua nuen lurra, krokodilo okelaren gozagarri, eta ez zitzaidan gozoagoa iruditu ez gaziago, baizik eta apur bat latzagoa mastekatzeko eta irensteko orduan. Eta aratzagoa eta erre-agoa nintzen orain?

'Errealagoak zarete horrela?' galdetu nuen.

Ahulak zirela esan zidan, horregatik jarraitu behar zutela zentzu gabeziaren aurkako erresistentzia etengabe hori.

'Lehen jende asko ginen hemen,' esan zuen, 'orain gutxi, kalamidade handiak pasatu ditugu, eta kalamidade handiagoak jasango ditugu, eta laster hilko gara.'

'Eta zergatik ez duzue hemendik alde egiten?'

'Hemen dugu habea,' esan zuen, kanpamentuan landatzen zuten enbor zaharra seinalatuz.

Habea aldean eramanez zetaketela, eta bazekiela beti non zeuden, habe horrek zabaltzen baitzien azpian arbaso hilen herria eta erakusten baitzien ilargia eta izarren zeru guztia. Mundua mugagabea, gehien gehiena itxuragabea eta ulergaitza, bizitza nekez gertatze-

koa zen. Eta habearen inguruan hor zeuden eurak, su txikiak euri zaparradaren azpian bezala.

'Laster hilko gara,' errepikatu zuen Epifaniok, 'baina ez diogu beldurrik heriotzari eta pozik hilko gara, bizitzara berriro jaiotzean gazteak izango garelako, atso agureak ere gazte jaioko garelako, ume txiki hildakoak ere gazte izango direlako, hor goiko izar artean izango dugun beste-lako bizitzara.'

'Nik ere zuetakoa izan nahi nuke,' esan nion.

'Geramai!' esan zidan barreka.

Geramai hitzak, gero jakin nuenez, koinatua esan nahi zuen, baina esanahi horrekin batera bazituen beste batzuk, bisitaria ere bazen, eta begia, eta manatia, eta lekukoa.

Hitz bakoitzak hainbat esanahi zuen. Ez zen homofonia bakarrik, eta polisemia baino zerbait gehiago zen nire ustez, esanahi desberdinen artean analogia harreman sare ezutuak nabaritzen baitziren.

Gauzen errealitate eskasiari buruzko sinestea kontuan hartu eta, hitzen polisemia naroa aztertuz, ordu asko emango nituen gero egitura semantiko bitxiak ondorioztatu eta asmatzen. Hitzek zentzua ematen diete gauzei, hauxe zen jende haren mintzairari buruzko nire hipotesia. Gauza bakoitzak ez du berez errealitate nahikoa eta, hitzen arteko antzak kargatzen ditu gauzak zentzuz.

Gau hura izar egon zen eta, hareatzen etzanik gora begira geundela, Inerih izarren antolakundeari buruz hasi zela uste dut, nantueraz ari baitzen:

Nehde kodo hanadi baguhne...

Ilargiari berebiziko garrantzia ematen zion, baina zeruan distiratzten ziren beste asturu guztiei ere bai, eta gu hareatzen erdi enterratuta geunden, tabakoa erretzen, zerua zen leiho zabaletik begira.

Hilabete egin nuen nantuekin. Artean, ez zen ibaian behera arrazionalik. Alde egitea erabaki nuen egunean, bi ehiztarik eramango ninduten kanoan El Dorado ostatuaren alboraino.

Zeremoniazko agurrik gabe, Inerih eta besteak isilik geratu ziren euren hondartza bazterrean. Hala ikusi nituen azkene-koz nantuek, biluzik, eta haien habea tente, iltzatua lurrean eta zeruan. Eta arrazionalen mundura itzuli nintzen.

Baina nantuek bizi ziren lekuan landatzen zuten habe hura sarritan itzuliko zitzaidan gogora. Esate baterako, John Bergerren liburua irakurri nuenean, A Seventh Man, Europako langile migratioari buruz. Zazpigarrena, Alemanian zazpi langiletatik bat turkoa edo jugoslaviarra zelako, Britainia Handian ere zazpi langiletatik bat Irlandatik edo kolonia ohietatik zetorrelako.

Ni Centro Extremeño baten gainean jaiotzen Bilbon eta emigranteak, extremeñoak zein beste edonongoak, hurbil sentitu ditut beti; liburu horretako erretratuak nik Santutxun, Atxurin edo Erriberan eguneroko ikusten nituen imaji-

BORJA GOITIA / JUANTXO EGANA

